

Erljioen historiari galdezka

Los creyentes de todas las religiones están habituados a contemplar el pasado de sus creencias e instituciones religiosas desde perspectivas propias (Biblia, Corán; Iglesia, Sinagoga; Teologías varias). Puede ser una visión legítima de fe. Hoy, cada vez más, junto a esa percepción creyente del pasado religioso, los historiadores, adscritos o no a fe alguna, tratan con interés y cuidado sobre cómo se ha desarrollado de hecho la vida religiosa en culturas y pueblos. Esta es otra lectura –descriptiva, no teológica– a tener también en cuenta.

Arrunki, erlijioetako sinestunek beren fedeargiarekin begiratu ohi dute iragana, erlijio bakoitzaren tradizioan datozen ziurtasun eta ikusmoldeekin begiraturako erlijioen historia izan ohi dute, beraz. Liburu sakratuetatik hasita, gero herrien kultura orokor eta erlijiosoaz ondu ohi da talde erlijiosoen iraganeko oiromena.

Galderaz betetako historia

Sentimendu, uste eta sinesgai erlijiosoak, nahiz horietatik jaiotako biziera pertsonal eta erakunde sozialak funtsezko giza galdera eta balioei loturik ageri dira herrien historietan. Zimentarri iraunkor eta unibertsal horien gain eraiki dira Erljio handiak, pisu sozial gaitza izateraino eta historiako gertakari handietan protagonista eta eragile izateraino, onerako edo txarrerako. Historiak denetik du, izan ere. Erljiotasunak eta erlijio-antolakuntzak, krisirik gogorrenen ondoren ere, indar handiz jaio berritzen diren giza galdera betikorren gain daude bizirik. Sobiet Batasun ateistaren ondoren ikusten dugun Ortodoxiaren arrakasta ez da ulertzen, noski, arrazoi erlijiosoetatik soilik (badago bestelakorik ere), baina segurua da betidaniko errusiar erlijiotasunak berak baduela hor bere lekua.

Gaurko historialarien zenbait galdera ekarri nahi dut hona, Erljio-Erakundeetatik kanpo

(eta berorien kontra egonik ere) erlijio-arazoa zein bizia den ikusteko.

Nornahirentzat izan daiteke interesgarri, Biblia eta Goi-Agerkunde guztien aurretik, gizakiari sentiera erlijioa nondik nora sortu ote zitzaion jakitea, eta Historia handiak horretaz zer esan ote lezakeen begiratzea. Zein izan da gizakiak “berezkoa” izan zuen lehenengo erlijio hura, eta nola azaldu eta eratu zuen hark halako sentiera berri hura?

Zer dela-eta, hasi zen ikusi eta ukitzen zuen munduaz harago zerbait “sakraturik” egon zitekeela pentsatzen? Egunsenti ederreneko zeru urdin-gorriminaren atzean ez ote zegoen bestelakorik? Edo gau beltz-ekaiztsutik nor zen mintzatzen zena? Zer edo nor zen, gero, barrunta zitekeen izakia? Misterioz beteta zegoen hori dena.

Laster jaio ziren hildakoen inguruko erritualetak, animalia hutsen artean sekula ikusi gabeak. Eta gizakia sakrifizioak egin eta otoitz egiten hasi zen: nolatan otu ote zitzaion horrelakorik gizakiari? Zein arrazoi eman zituen burubide berri horretarako? Historiak zen jakin dezake horretaz guztiaz? Jainko bakar bati begira ala jainko-jainkosa ugariren aurrean, egin behar zen otoitz?

Erljiotasuna apenas izan den inoiz, bakarka bizi izan den zerbait; aitzitik, gizartean eta lagunartean antolatuta da oso berehala: hortaz, indar



eta arautegi sozial ere laster bihurtu da, horrek dakartzan elkartasun eta etsaigo posibleekin. Munduko kulturak beteta daude Erljio antolatuak emandako emaitza ederrekin (literatura, arteak, musika, zerbitzu sozialak, etab.), baina, era berean, indarkeriarekin loturik agertzen zaigu erlijioa hainbat aro eta gizartetan (arrazo erlijiosoengatik egindako gerrak, ezarritako kasta-bereizkeriak, legeztatutako torturak, eta heriotza-zigorak, gizarte-arbuioak).

Hala ere, gizadiaren aberastasun kultural handien artean daude Erljioak, eta XX. mendeko lan asko egin du hori ikasi eta ulertarazteko.

Erljioen artean berriz ere

Gu, ikasiz joan garen neurrian, galdera sozio-erlijiosoz inguraturik gaude gaur egun ere. Mundu globalean, Erljioak elkarrengandik sekula baino gertuago daude, elkarrizketarako bezalatsu elkar zango-trabatzeko; bata bestea ezagutzeko inoiz baino tresna hobek daude orain, elkar-ezagutzak egin dituen zientzi aurrerapengatik, komunikabideek bata bestearen etxera sartzeko aukera eman dutelako, hainbat lurraldetan erlijiodun ezberdinak elkarren ondoan bizi direlako, guztiin jakin-egarria zabaldu delako, etab.

Gutxiena espero zenean, Vatikanoko II. Kontzilioak beste erlijioen balio positiboa aitortu zuen: "Antzinadanik eta gure egunak arte, bada jendalde ezberdinetan, gauzen joan etorrian eta giza bizitzako gertaeretan dagoen [jainkozko] indar misteriotsu horren nolabaiteko susmoa, eta batzuetan baita Jainkotasun gorenaren eta Aitaren beraren ezaguera ere," dio testu ezagun batek (NA 2).

Eta berriz ere galderak datoz: Zergatik hainbeste Erljio munduan? Ba al dugu elkarren-

gandik zer ikasirik? Hain urrun al daude gungandik Erljio handien sortzaileak eta haiengandik datozkigun mezuak? Zer dago berorien ondare espiritualetik guztiontzako baliozkoa denik? Zein baldintza bete beharko litzuke denen arteko elkarrizketa jatorrak?

Itxura onarekin antolatzen diren erlijioarte-ko topaketek zenbateraino zaintzen dituzte premiazko baldintza horiek? Asisko topaketa (1986) eta ondoko historia begiratzekoak dira, nik uste, nahiko litzatekeen "jatortasunaren" izenean.

Iraganeko historia ezagututa eta hainbat gerra berri antolaturen arriskuekin, zenbaterainoko arriskuak ditugu gaur erlijio-gerra berriak piztu eta sustatzeko? Gogora Sudan, Irak, Siria edo Egipto, India edo Filipinak.

Europak asko kostata ikasi zuen kristau Konfesioen arteko tolerantzia (gogora, adibidez, Hogeita Hamar Urteko gerrate ankerra, eta arma eta negoziaketa bidez lortutako ondoko Westfaliako Bakea, 1648). Orain, immigrazioa tarteko dela, tolerantzia eta hurbiltasun berriak ikasi beharrean aurkitzen gara, hemen etxean bertan.

Teologia katolikoak eta protestanteak lezioren bat ikasi dute amaigabeko beren eztabaida luzeetatik, orain azkenik puntu nagusi batean oinarritzko doktrina-adostasunera iristeraino (Zuzenespenaren Deklarazioa, 1999), baina bien bitartean gerra gogorrik egon da, erlijio instituzionalak gizeartean indar eta botere bihurtu ohi direlako.

Premiazkoak ditugun atzera-begiratu historiko batzuek lagundu beharko ligukete etorkizuna hobeki asmatzen.

Joseba Intxausti